



Txapel punk taldeak (Lekeitio, 1999) arrastoa utzi du urteetan. Iñigito Txapelen eskutik dator Txapel punk. Hainbat musikari pasatu dira taldeetik, baina azkenaldiko hirukoa sendo dago bakoitza bere zereginetan. Atrofik bigarren diskotik baxua jotzen du eta Tokik urteak daramatza Iñigitoen ondoan batera astintzen. Txapel punk proiektuak gorabeherak izan ditu tartean Etsaiak taldeko kide delako Iñigito. Orain hiruko adoretzua. Erabateko nortasuna erakutsi ohi du Txapel punk taldeak aurrera egiteko. Hamasei urte eta orain zazpigarren diskoa, beti izan direna aldarrikatzeko baita izenburuan ere: punkaren semeak.

Txapel punk taldearen "Punkaren semeak" diskoa 2015eko urrian grabatu du Axular Arizmendi teknikariak Mutrikuko AME estudioan. Masterizazioa Estanis Elorzak egin du Doctor Master estudioan (Donostia). Diseinua eta argazkiak Aitorxuk egin ditu.

Txapel punk taldearen zazpigarren lanak taldekideak direna aldarrikatuko du: "Punkaren semeak". Punka rockaren ikuspegitik, rocka punkaren zirrikitu guztietatik. Sei abesti laburretan Txapel punk taldeak bizitzaren kaleak zeharkatuko ditu eta esango digu zein modu nazkagarrira daramagun geure bizitza askotan edo garamatzaten. Esan baina abiapuntua jarri hortik ateratzeko. Oraina bizi, iragana igaro zaigu eta etorkizunak batek daki nola pasatuko dugun. Bizitzaren gatibu baina alde alaiari ez dio muzin egingo taldeak. Txapel punk taldeak bizitzaren kalearen bi espaloiak dantzan jarriko ditu abesti erraz, azkar eta trinkoekin. Melodiak buruan itsatsiko dira eta ea zer gertatzen gero. Txapel punk taldea hainbatentzat da egia bihurtzen diren amesgaiztoak. Beste batzuetan, ordea, betetzen diren ametsak, eta hori da.

Taberna

Entseatu ondoren tragoxka bat hartu ohi dugu betiko tabernan eta beste bat ia betiko tabernan. Entsegua bukatu bezain laster etorri zitzaidan kantu honen melodia. Betiko tabernan eman nion hasiera eta hurrengo egunean bukaera eman nion ia betiko beste tabernan. Melodia gainezka du alde guztietatik, kresalezko punk and roll-a.

Punkaren semeak

Letra bat idaztera noanean ez dut alde zurretik pentsatuta zer hizkuntzetan idatziko dudan, euskaraz edo gaztelaniaz. Datorkidan bezala dagit. Ia beti erraztasun handiagoa izan dut gaztelaniaz egiteko. Orain euskara inoiz baino gehiago darabil, eta baita bizi ere. Kantuen ehunekoa goraka doakit (seitik bi). Iraganean seitik bakarra egin ohi nuen. "Punkaren semeak" garai batean "Hijos del punk" izango zen seguruen, baina ez, "Punkaren semeak" latzagoa da. Hard core gehi punka, nahasketa lehertzailea.

Tú y yo

Kafeak biziki pizten nau. Inspirazio iturri bikaina da niretzat. Behin, kafeinaz leporaino nindoala, heriotzaren inguruan hausnartzen eman nuen eguna. Bizitza gurasoek eman digute, jaiotze prozesua milaka urteetan errepikatu da etengabe... Zenbat milioi hildako bandera, herrialde edo erlijio

bakoitzaren gibelean? Hurrengoak zu eta ni izan gaitezke. Kantu honi 20 bertsio egin dizkiot, denak latzak, baina azken honekin geratu naiz. Baratzeko punka.

Gu gara gu

Letra entsegetako jaiez doa: sentsazioak, zirrarak... Entseguetan, zuzenekoetan bezala, sentimendu asko metatzen dira, baina inoiz ez dut jakin nola demontre azaldu zehazki. Egun horretan umore onez nengo. Musika alaiak eraman ninduen letra alai idaztera. Festetako punka.

Orro canro gauria

Ez dut akorduan abesti hau nola sortu nuen. Pentsa nahi dut izango zela berriak ikustean edo egunkaria irakurri ondoren. Ez gora, ez behera nagoanean trikimailua hau erabili ohi dut. Haserre egongo nintzen kantua egin nuenean. Aldarte onean izan banintz beste kuku batek joko zuen. Punk and punk.

Escalofos de la droga

Kafea, tabakoa, alkohola, speeda, koka... dena da droga. Gizarteak droga tonaka kontsumitzen du, drogak suntsitu egiten gaitu, eta denok onartzen dugu, drogaren gatibu bihurtu gara. Pisu handia. Zati ilun eta melodikoak batuta.

Txapel punk

Iñigito: ahots nagusia, gitarra, koruak

Atrofi: baxua eta koruak

Toki: batera



ritxi aizpuru + txapel punk
(2015eko azaroaren 26)